


Proposamen didaktikoa



Erljio Katolikoa

LMH 2





Gida liburu hau Lehen Hezkuntzako bigarren mailari dagokio, Erljio Katolikoa arloari hain zuzen ere, eta Dinorah proiektuko material kurrikularretako bat da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007/11/30).

Gerentea Agustin Oiarzabal · **Proiektuaren arduraduna** Juan Pedro Castellano · **Edizio zuzendaria** Sabin Gorrotxategi · **Edizio koordinazioa** Begoña Loza · **Euskal edizioaren koordinazioa** Eukene Herrera · **Testua** Patxi Ezkiaga · **Arte zuzendaritza** GELVeko irudi eta diseinu mintegia · **Azalaren diseinua** 3 Comunicación visual · **Azalaren irudia** Valentí Gubianas · **Ilustrazioa** Valentí Gubianas, Ximena Maier eta Javier Palomo · **Argazkiak** A.G.E. FotoStock eta Prisma · **Produktzio koordinazioa** Pablo Silva Fernández · **Maketazioa** Jomard eta Nerea Uribe · **Fotomekanika** Da-Vinci

Inprimaketa · Cuatroas S.L. - Ibarsusi bidea, 1 - 1. - 48004 Bilbo - 94 410 60 52
cuatroas@cuatroas.com

© Jesús Lacuey, Juan Manuel Rodríguez, 2007 · © Editorial Luis Vives, 2007
© Ibaizabal argitaletxea, 2008

ERLIJIO KATOLIKOA Gida LMH 2 - 12590
ISBN: 978-84-8394-028-0
Lege gordailua: BI-0496-08

Argitalpen honen eskubide guztiak Ibaizabal Edelvives S.A. argitaletxearen esku geratzen dira. *Copyright*aren titularren idatzizko baimena lortu ezean, ezin da lan hau osorik edo zatika berregin, bidea edo prozedura edozein delarik ere (erreprografia eta tratamendu informatikoa barne), ezta aleak publikoki errentan utzi edota maileguan eman ere. Bestela, legetan zehaztutako zigorrak ezarriko dira.





PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Erljio Katolikoa

lehen Hezkuntzako bigarren maila

Egileak


Jesus Lacuey

Juan Manuel Rodríguez

Gainbegiratzaile teknikoa

Carlos Romera

IBAIZABAL



Gida liburu hau Lehen Hezkuntzako bigarren mailari dagokio, Erljio Katolikoa arloari hain zuzen ere, eta Dinorah proiektuko material kurrikularretako bat da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007/11/30).

Gerentea Agustin Oiarzabal · **Proiektuaren arduraduna** Juan Pedro Castellano · **Edizio zuzendaria** Sabin Gorrotxategi · **Edizio koordinazioa** Begoña Loza · **Euskal edizioaren koordinazioa** Eukene Herrera · **Testua** Patxi Ezkiaga · **Arte zuzendaritza** GELVeko irudi eta diseinu mintegia · **Azalaren diseinua** 3 Comunicación visual · **Azalaren irudia** Valentí Gubianas · **Ilustrazioa** Valentí Gubianas, Ximena Maier eta Javier Palomo · **Argazkiak** A.G.E. FotoStock eta Prisma · **Produktzio koordinazioa** Pablo Silva Fernández · **Maketazioa** Jomard eta Nerea Uribe · **Fotomekanika** Da-Vinci

Inprimaketa · Cuatroas S.L. - Ibarsusi bidea, 1 - 1. - 48004 Bilbo - 94 410 60 52
cuatroas@cuatroas.com

© Jesús Lacuey, Juan Manuel Rodríguez, 2007 · © Editorial Luis Vives, 2007
© Ibaizabal argitaletxea, 2008

ERLIJIO KATOLIKOA Gida LMH 2 - 12590
ISBN: 978-84-8394-028-0
Lege gordailua: BI-0496-08

Argitalpen honen eskubide guztiak Ibaizabal Edelvives S.A. argitaletxearen esku geratzen dira. *Copyrightaren* titularren idatzizko baimena lortu ezean, ezin da lan hau osorik edo zatika berregin, bidea edo prozedura edozein delarik ere (erreprografia eta tratamendu informatikoa barne), ezta aleak publikoki errentan utzi edota maileguan eman ere. Bestela, legeetan zehaztutako zigorrak ezarriko dira.





Aurkibidea

● Aurkezpen gutuna	4
● Dinorah proiektuaren gakoak	5
● Erljio arloko metodologia.....	6
● Elkarlaneko ikasketa	7
● Proiektuko materialak.....	8
● Ikasgelako programazioak	12
● Baliabide didaktikoak	36
● Eranskinak: kontakizunak eta abestiak.....	96

Aurkezpen gutuna

baizabal argitaletxeak aurkezten duen Dinorah proiektuaren bidez, kristautasunaren mezua Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko haurrei gertutasunez helarazi nahi zaie, modu argian eta errazean.

Proiektua honako bi ikusmolde nagusi hauek zehazten dute: alde batetik, aurkezpena egiten dugunon ikusmoldea, hau da, gaur egun hezitzaile eta dibulgatzaile lanetan dihardugunok baina haurrak ere izan ginenok, eta, beraz, mezu hori garai jakin bateko kulturaren eta ereduaren arabera jaso eta bizi ginenok, edukia lehenesten zen garaikoak, hain zuzen. Bestalde, mezua jasoko dutenen ikusmoldea dugu, bestelako kultura eta ereduetan murgilduta, gaur egungo haurrak forma eta esperientzia lehenesten dituen garaian bizi dira. Ziur gaude, bi ikusmolde horiek elkartzean, mezu kristaua bere dimentsio guztietan aurkezteko gai izango garela. Azken finean, horixe bera da zeinua, edo mezua: adierazleak eta adieraziak osatutako funtzio semiotikoa.

Gizakundea da mezu kristauaren gertakari nagusia: Jainkoa gizaki bihurtzen da Jesusen bidez, gure artean egoteko. Horregatik, funtsezko irizpidea eta proiektuaren orientabide nagusia gizakundea izan da beti. Jesusengan, Elizan eta kristau bakoitzaren baitan suma daitekeen Jainkoaren gertutasuna da gure abiapuntua.

Norabide horretan, egileen asmo nagusiaren berri eman dezakeen Bibliako testurik egokiena San Joanen Ebanjelioaren hasiera da: “Hasieran Hitza zen, eta Hitza Jainko zen ...”.



Bertan, gure proiektua egituratzen duten elementuak ageri dira, hau da: Jainkoa, agertu nahi dena, eta Hitzean, jakintzan (edukia), eta batez ere, “hargian” (forma eta esperientzia) agertzen dena. Jesus, hitza, argia, mezua eta Jainkoaren aurpegia dena. Profeta, igartzen duena (Erljioko irakaslea), argia bera izan gabe horren berri ematera datorrena. Eta azkenean, mundua, kosmosa, errealitate ordenatua, bere ordenaren zergatian eta bere izatean zentzua bilatzen duena (mezua jasotzen dutenak).

Dinorah proiektuaren gakoak

Proiektu honen berariazko metodologia oso argi agertuko zaigu, hasiera-hasieratik:

- a) *Haurraren esperientziatik abiatzen gara beti.* Gure ustez, ideia hori garrantzitsua da, gizakiaren bizitzarekin zerikusirik ez duen eta aurretik egina dagoen erlijioari buruzko ikuspegia errotu ez dadin.
- b) *Gizakiaren esperientzia hori Jainkoaren esperientziaren eta maitasunaren bidez argitzen da.* Une horretan, Bibliak, Elizaren Tradizioak eta gaur egungo doktrinak iradokitako erlijio kontzeptu oinarritzkoak jakinaraziko ditugu.
- c) *Jainkoak argituta eta Espirituaren indarrak lagunduta, kristauak bizitzara itzuli eta bertan errotzen dira.* Baina bizitza hori aldatu egiten da, Berpiztutako Espirituaz beterik baitago. Erlijio irakasle gisa dugun esperientzia aintzat hartuz, puntu horrek garrantzi handia duela uste dugu. Jesusen jarraitzaileek pentsatu egiten dute, balioak dituzte, Jesus bezala bizitzeko ahalegina egiten dute... Hortik datorkie, hain zuen, kristau izena.

Une horretan bertan, haurrak, poliki-poliki, kristau bizitza egiten hasten dira; eta batik bat, horrekin batera datozen balioak barneratzen dituzte.

Elementu garrantzitsuenak

- Lagunarteko hizkuntza, zuzena, hizkuntza ulertzeko gaitasuna areagotzen doan heinean zorrozten joango dena.
- Abiapuntua gertukoa eta zehatza da, hau da, haurraren esperientzian, irudietan, ipuinetan, abestietan eta abarretan oinarritzen dena.
- Jarduera errazak: marrazkiak, ebakinak, hitz gurutzatuak, esaldien eraketa... Unitatearen eduki edo ideia nagusietara hurbiltzen lagunduko diguten jarduerak.
- Narrazio hizkuntzak leku berezia izango du: ipuinak, kontakizunak, testu tradizionalak, etab. Ikasleek urteko garai bakoitzean duten mailara egokituko dira.
- Bibliako testu egokituak. Horretarako, Ibaizabalek Bibliako testuei buruz dituen argitalpenak erabiliko dira.
- Mezu kristauaren muinera hurbilduko gara pixkanaka. Arian-arian, haurraren adinari dagozkion ezagutza mailan eta jarreretan txertatzen joango da.
- Unitate didaktikoen edukiak finkatzen lagungarri izango diren hitzekin eginiko abestiak kantatuko dira, eta erlijio musika entzungo da proposamena girotzeko.
- Artearen historiako irudiak aurkeztuko dira eta erlijioari buruzko herri tradizioen berri emango da. Hartara, erlijioaren kultura edukia osatuko da.
- Unitate bakoitzaren xedeen aurkezpena arretaz zainduko da, unitatearen atal bakoitzaren amaieran sintesi laburrak eginez.
- Gure ustez, seme-alaben erlijio heziketan garrantzi handia du gurasoen parte-hartzeak. Beraz, proposamen didaktikoan irakasleei jarduerak banatuko zaizkie ikasleek, nahi izanez gero, etxean egin ditzaten.

Erljio arloko metodologia

Katekesia hasi eta Lehen Jaunartzea prestatzeko garaian gaude.

Garai horretan, hurrek mendetasun handia dute oraindik beren sozializazioaz arduratzen diren pertsonetikiko (familia, irakasleak, komunikabideak). Mendetasun horrek kristau elkartean txertatzeko garaian ere eragiten du. Gurasoek sinesten, pentsatzen eta egiten duten horixe da hurrek, adin horretan, sinesten, pentsatzen eta egiten dutena. Irakasleak ere laguntzen eta eragiten du. Era berean, komunikabideak, telebista batez ere, aintzat hartu beharreko eragileak dira.

Hori guztia gogoan izanda, adin horretan ikasleek erlijio eduki soilak eta argiak eskuratuko dituzte. Horretarako, adibide asko eta edukiak finkatzen lagungarri diren esperientziak erabiliko dira.

Hurrek ez dituzte zalantzan jarriko gurasoen edo irakaslearen esanak. Mezu horiek norabide bertsuan igortzean datza arazoa. Urte horietan, hurrek ia guztia onartzen dute, esaten diegun guztia, ona eta txarra, xurgatzen dute.



Haien erlijiozaletasuna sinplea da, azalpen handirik behar ez duena. Otoitzak eta erlijio abestiak edo leloak ikasteko aroan daude. Erabat ulertu ez arren, beren memorian txertatuko dira; eta garaia iristean, haiei buruzko hausnarketak egin, eta hobeto ulertuko dituzte.

Horregatik, erakusten zaien erlijio ereduak ez du mirari, agerpen, magia, sineskeria eta animismo askorik eduki behar. Orain ez ditu zalantzan jarriko, baina jarrera kritikoa bereganatzean, arbuia egingo ditu sinesgarriak ez direlako.

Ekintzan oinarrituriko erlijiozaletasuna da hurrarena, adierazpen soilarena eta forma sinplea, erritu eta formalismo askorik gabekoa. Hurren erlijiozaletasuna parte hartzailea eta helduek gidatua da.

Lehenik eta behin, gogoan izan behar dugu ikasgelan emandako Erljioa funtsean kultura dela. Mezu kristaua aurkeztu nahi da.

Erljioko curriculumaren arabera, adin hori duten hurrek mezu kristauaren funtsezko egiak ezagutu behar dituzte, baina beren adinera egokituak.

Gure ikaskuntzen ardatza Nazareteko Jesus izango da. Eskolako erlijio ikaskuntza orean giltzarria da: Berak Aitari buruz hitz egiten die bere jarraitzaileei; Aitarengana iristeko bidea seinalatzen du; Aitaren obrak erakusten ditu; Berari esker, sinestunek Aitaren eginbidea ezagutzen dute; eta Berak lasaitzen ditu jarraitzaileak, Espiritu Santuaren indarrez.

Etapa honetan tentuz jokatu behar dugu, Jesusen mirariak gehiegi azpimarratu gabe. Izan ere, hurrek istorioak asmatzeko gaitasun handia dute. Hurrak Jesusengandik honako hauek jaso behar ditu: maitasuna, gurasoei obedientzia, besteei ematea, anaia den bestearekiko kezka, kontenplazioa eta sorkuntzaren opariarekiko esker ona, barkamena eta abar.

Jesusen irudiaren aurkezpen irrealak saihestuko ditugu hala deskribapenetan nola ilustrazioetan, hau da: Jesus haurra kaniketan jolasten edo ikasgelan buru-belarri ikasten ari dela.

Elkarlaneko ikasketa

Unitate didaktikoen azalpen xehea egin aurretik, elkarlaneko ikasketaren ideia nagusiak laburtuko ditugu, maiz aipatutako ikasketa estrategia delako. Hezkuntza proposamen gisa interesgarria dela deritzogu, Erljio arloan bete-betean txertatzen delako; izan ere, ikasgai horretan edukiak ez ezik, harremanak, lankidetzak, eta azken finean, kristau komunitatea eraikitzeke ezinbestekoak diren jarrerak ere erakusten dira.

1. Elkarlaneko ikasketa ekintza pedagogikoaren eredia da, eta kontrajarrita dago norbanakoaren ikasketarekin eta ikasketa lehiakorarekin.
2. Elkarlaneko ikasketaren bidez, ikasle bakoitzak taldean lana egiteko trebetasunak eta ezagutzak eskuratzea lortu nahi da, hau da: ikasleak taldean ikasten ikasi behar du.
3. Elkarlaneko ikasketa taldean egiten da, ikasgelan talde edo bikoteen arteko elkarrreragina bilatuz. Jarduera gehienak talde heterogeneoetan egiten dira, hau da: askotariko gaitasunak dituzten lau bat kidek osaturiko taldeak (sexua, adimen maila, kultura jatorria, izaera,...).
4. Elkarlaneko ikasketan norbera da bere lanaren erantzulea eta baita taldekide bakoitzak egiten duen lanarena ere. Taldeak ez baditu lan jakin bateko helburuak bete, norberak ere ez ditu bete.
5. Elkarlaneko ikaskuntza ikasgelan antolatzeko proposamen nagusiak honako hauek dira: ikasleak talde heterogeneoak osatuz elkartzea. Ikasleen arteko mendekotasuna edo ikasleen arteko harreman positiboa lantzea (besteari lagundu behar zaio beti eta besteari guri laguntzen utzi behar diogu), ezetz esaten diegu ekintza indibidualistei, negatiboari edo lehiakorrei. Elkarren arteko mendekotasuna edo bata bestearekin lanean aritzeko premia piztea. Norberaren erantzukizuna, edo norberak taldeko lanekiko duen konpromisoa bultzatzea. Gizarte trebetasunak etengabe garatzea. Ikasle bakoitzaren aukera berdintasuna ziurtatzea, talde lanak iraun bitartean. Amaitzeko, taldekideek eta irakasleak aldiro berrikusi eta ebaluatu beharko dute taldeak eta norberak eginiko lana.
6. Elkarlaneko ikaskuntzan irakasleak ikaslearen eta ezagutzaren arteko bitartekari lana egiten du. Ikaskuntzaren erdigunea baino gehiago, ezagutzak eskuratzeko lanak behatu, bideratu, sustatu eta koordinatu egiten ditu irakasleak.
7. Elkarlaneko ikaskuntzaren bidez, ezagutzaren gizartea eraikitzea lortu nahi da. Irakaslea bitartekaria da, ikaslea ikasten duenaren protagonista da, eta lankidetzak taldeak ikasteko giroa sortzen du.
8. Elkarlaneko ikaskuntzaren bidez, bizikidetzarako gizarte trebetasunak, ikasten ikasteko estrategiak eta arlo bakoitzaren eduki jakinak ikasten dira.
9. Elkarlaneko ikaskuntzaren bidez, lankidetzan aritzea zer den ikasten da, gauza esanguratsuak, eta aldi berean, guztientzako zentzuzkoak diren gauzak eginez. Lana amaitzean, taldeak eta norberak eginiko lanaren alde positiboak eta negatiboak aztertuko dira. Elkarlaneko ikaskuntzan ikasle bakoitza eta talde osoa ebaluatzen da.
10. Laburtuz, elkarlaneko ikaskuntzaren asmoak honako hauek dira: gehiago eta hobeto ikastea, arazoak taldean bideratzea, eta ikasle bakoitzak ikasten ikasteko oinarritzko gaitasuna eskuratzeko, hau da, ikaskuntzaren autonomia lortzea. (Uriz Bidegain, Nicolas. Navarra. 1999).

«Norbaitek jatekorik eskatzen badizu, ez arrainik eman, kanabera utzi eta arrantzan egiten erakutsiezaiozu.»

Proiektuko materialak


Ikaslearentzat

Ikaslearen liburua



1. Motibazio lamina

Liburuko protagonista guztiak dituen ilustrazioak unitatearen edukiak aurkezten ditu. Horrekin batera, abesti bat eta hainbat jarduera proposatzen dira.



2. Begira atala

Orrialde bikoitzean, kontakizun bat eta jarduerak daude, eta horien bidez, ikasleek unitatearen gaiari buruz duten esperientzia aztertzen da.

3. Entzun atala

Orrialde bikoitzean, Bibliako narrazioa ageri zaigu. Testuari eta bertako erlijio gaiari buruzko hainbat jarduera proposatzen dira.



4. Bizi atala

Orrialde bikoitzean, jarduerak proposatzen dira, aurreko ataletan ikasitakoa ikasleen bizitzara aplikatzeari begira. Mezu erlijiosoak erakutsitako bizimodua da.

5. Zenbait erlijio

Hiru hilean behineko atal honen bidez, beste erlijio batzuen oinarrizko alderdiak erakusten dira. Erlijio aniztasunaren berri eman eta horrekiko begirunea erakusten da.




6. Hiztegia

Hiru hilean behineko atal honetan, unitateak egin ahala agertutako oinarrizko hiztegiaren berri ematen da.


7. Gogoratu

Amaierako orrialde bikoitz honetan urteko eduki nagusiak berrikusten dira.



8. Ebakinen orrialdeak

Orrialde hauetan liburuko jarduerak egiteko beharrezkoak diren ebakigarriak aurkituko ditugu.



Irakaslearentzat

Proposamen didaktikoa



Proposamen didaktiko honetan, irakasleak unitateak lantzeko behar duen material osagarri guztia topatuko du. Barruan honako hauek aurkituko ditu:

1. Ikasgelako programazioak eta ikaslearen liburuko unitateen edukiak.



2. Unitateen garapena


Atal honetan ikaslearen liburuko orrialdeak osorik ageri zaizkigu, ikuspegi didaktikotik lantzeko honako proposamen hauek eginez:

- iradokizun metodologikoak
- jarduera osagarriak (errefortzukoak, zabaltzekoak eta elkarlanekoak).
- eta ebazpidea.



3. Eranskinak

CDan dauden kontakizun eta abesti guztietako testuen transkripzioa.



Abestien eta kontakizunen CDak

Proposamen didaktikoarekin batera datozen CDetan ikaslearen liburuko kontakizunen eta abestien lokuzio aberatsak daude. Unitate bakoitzaren lan premiak aintzat hartuz, lokuzioak pistetan banatu dira. Dena den, abestiak ikasi ondoren abesteko aukera izan dezagun, lokuzioak osorik ere entzun ahal izango ditugu.

